

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Alli kontseilaria Kontsumitzaileen Laguntzarako bulego berriak ikustera joan da, Iruñeko Amaia kaleko 2. zenbakira

Kontsumo- eta arbitraje-zerbitzuak, hipoteka-bitartekaritza eta lehiaren defentsa baliatzea erraztuko die herritarrei bulegoak hiriaren erdigunera aldatzeak

Martes, 29 de julio de 2014

Íñigo Alli Gizarte Politiketako kontseilaria izan da gaur goizean Nafarroako Gobernu Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuko bulego berrietan. Iruñeko Amaia kaleko 2. zenbakian daude iragan astetik.

Kontsumitzaileei arreta hobea eskainiko zaie bulegoak Eraikin Adimendunetatik hiriko erdiguneko egoitza berrira aldatuta, arreta hurbilagokoa eta irisgarriagoa izango baita. Bulego berriek 780 m² inguruko azalera erabilgarria dute, orain arteko 280 m²-ren aldean. Gogorarazi behar da, ohiko kontsulta eta erreklamazioez gain, Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuak hipoteka-bitartekaritzako eta lehiaren defentsarako zerbitzuak ere eskaintzen dituela. 21 langilek ematen dute arreta.

Honako hauek dira aurrez hitzordua eskatzeko eta kontsumo-kontsultak egiteko telefono-zenbakiak: 848 42 77 33 eta 848 42 77 58, 8:00etatik 10:00etara. Aurrez aurreko arreta 10:00etatik 14:30era eskainiko da, baina hitzordua eskatu beharko da lehenago. Hipoteka Bitartekaritzako Bulegoaren zerbitzuak eskatzeko, 848 42 69 00 eta 902 165 170 dira telefono-zenbakiak.

Mariano Oto Gizarte Politiketako eta Kontsumoko zuzendari nagusia eta César López Díos Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuaren zuzendaria izan dira Alli kontseilariarekin batera.

9.430 kontsulta artatu zituzten 2013an

Nafarroako Gobernu Kontsumitzaileen laguntzarako bulegoek herritarren 9.430 kontsulta artatu eta 2.946 erreklamazio jaso zituzten 2013an. Iruñekoaz gain, Lizarrakoa, Tafallakoa eta Zangozakoa ere badaude. Kontsumoko Arbitraje Zerbitzuak, bestalde, 488 bitartekotza eta 543 laudo egin zituen. Zera azpimarratu behar da: arbitrajera atxikitako



Alli kontseilaria, César López eta Mariano Oto, Kontsumo Zerbitzuko bulego berrietan

enpresen kopurua % 16 hazi zen, 2012an 1.040 izatetik 2013an 1.206 izatera pasatu ziren.

Gainera, Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuak merkatua kontrolatzeko hamar kanpainatan hartu zuen parte. Horietatik bost Kontsumoko Institutu Nazionalak sustatu zituen, hiru zerbitzuaren ekimen bidez eta bi Europako ekintzen esparruan.